

# Piztu ilusioa

*Gabonetako gehigarri berezia*

# Ilusiorako osagaiak

Abendua hilabete garrantzitsua da merkatari txikientzat, kontsumoa asko handitzen baita Gabonak eta urte berria direla eta. Hala ere, herritar gehienek saltoki handietara jotzen dute erosketak egitera.

Goraka doa baita ere Internet bidezko erosketen kopurua. Horren aurrean, tokiko merkataritza erabat funtsezkoa da eskualdearen bizitzarako. Eskualdean kontsumitu eta eskualdea oparitzeko gida aurkituko duzu hemen. Izan ere, Aiaraldetik mugitu gabe herrietako saltokietan topatu daitezke Gabonetarako beharrezko osagai guztiak.

## TXIMELETA

**Zumalakarregi 50, Laudio**
946 72 27 20



1 Alemaniar parka larrosa txanoarekin.

2 Jertse beltza eta larrosa, Pame Carrioni.

## LEVI'S

**Araba kalea 1, Laudio**
946 72 62 24 · 688 818 681





3 Emakumezkoen lumadun berokia, LOIS. 124,9€

4 Gizonezkoen prakak, LEVI'S. 120€

# Ekonomatua

EKONOMATUA
ELIKADURA FAKTORIA

## *Eguberri hauetan, kontsumitu tokiko produktuak!*




Aiarako eta Orozkoko gaztak, Arabako kroketa artisauak, eskualdeko txakolinak, ardo aparduna, ama orez egindako ogiak eta goxoak, izokin ketua, hegaluzea, Nafarroako zainzuriak zein orburuak, Arabar Errioxako ardo ekologikoak, Añanako gatza, bermutak, salda, marmelada bereziak, gazta-zaharra...

Ehunka produktu topatuko dituzu gure webgunean.

## *Jaten duguna gara!*

**Egin zure eskaera:**
**www.ekonomatua.eus webgunean**

## Ilusiorako osagaiak

# Aiaraldeko IX. Erakusleihoen Lehiaketa abian dago jadanik



### Amurrion, Artziniegan, Aiaran, Laudion eta Okondon prest daude jadanik saltokiak Aiaraldeko IX. Erakusleiho Lehiaketan parte hartzeko. Sari banaketa abenduaren 20an izango da Arespalditzan.

Aiarako IX. Erakusleihoen Lehiaketa antolatu du AEKOk (Aiaraldeko Enpreseen Koordinaziorako Federazioak), Aiarako Kuadrillaren babesarekin.

Establezimenduek lehiaketaren bereizgarria daukate jarrita dagoeneko eta berehala hasiko da epaimahaiaren lana. Epaile teknikoak Gorka Otsoa de Alda, Iñigo Bastida eta Txus Suarez dira eta lanak baloratzeko orduan bost ezaugarri aztertuko dituzte: sormena eta originaltasuna, produktuaren erakusketa, argiztapena, kromatistika eta elaborazioa eta akabera.

Honako hauek izango dira sariak: lehen saria 700 euro eta garaikurra; bigarren saria: 300 euro eta garaikurra; eta, azkenik, hirugarren saria 150 euro eta garaikurra.

Bi garaikur gehiago banatuko ditzute ere; bata Aiarako erakusleiho onenarentzat eta bestea Okondoko erakusleiho onenarentzat.

Aurten, gainera, AENKOMERek (Arabako Merkataritza Federazioak) 150 euro eta garaikur bat emango dizkio erakusleiho deigarrienari. Abenduaren 20an Arespalditzan egingo den sari banaketa ekitaldian jakinaraziko dira irabazleak.

**Herrietan ere, erakusleiho onenaren bila**

Eskualde mailako erakusleiho lehiaketaz gain, hainbat udalerritan ere txapelketa propioak antolatu dituzte. Laudion, esaterako, eraskuleiho lehiaketaren XXX. edizioa jarri du abian APILL elkarteak, hamazortzi saltokiren parte hartzearekin. Berrikuntza bat txertatu dute aurtengo ekimenean, bi modu egongo baitira erakusleihoen balorazioan parte hartzeko. Alde batetik, ohiko modua egongo da: pertsona bakoitzak bere erakusleiho gogokoena bozkatzea. Baina, bestetik, Erakusleihoen Ginkana ere egin ahalko dute herritarrek.

Urduñan ere egingo dute erakusleiho lehiaketa, kasu honetan IX. edizioa. Abenduaren 10ean ireki zen herritarren bozkak jasotzeko epea, eta urtarrilaren 5era arte egongo da zabalik.

Azkenik, Amurrion, erakusleiho lehiaketaren X. edizioa prestatu du Izan Amurrio elkarteak. Guztira hamasei establezimenduk eman dute izena. Herritarrek abenduaren 20ra arte izango dute eskaparate gogokoena Kultur Etxeko hautesontzian bozkatzeko epea. Bozka ematen duten herritar guztioen artean udalerrian gastatzeko 75 euroko bi bono zozkatuko dituzte.

# Ilusiorako osagaiak

## ATSEDENA OPARITU

**Egonaldi eta bainuetxe opariak:**
bikoteentzako egonaldi erromantikoak, zirkuitu termalak, gosariak, masajeak...

ERRESERBATU ZURE BONUA!




hotelbalnearioareatza.com
balneario@hotelbalnearioareatza.com
94 657 27 05

HOTEL ORDUÑA PLAZA
★★★★ Balneario



hotelbalneariorduna.com
**balneario@hotelordunaplaza.com**
945 56 90 38

---

## Xcaret ESTILISMO

ADITUAK GARA:
- Balayageetan eta dekolorazio osoetan.
- Trikologia tratamenduetan (erortzeak, kaspa/zolda, psoriasia...).
- Makillajean.

SCAN ME

BAIAS KALEA 5, LAUDIO 94 602 76 94
@xcaret_estilismo
xcaretestilismo.com

---

## IRRINTZI
**euskal jantzi denda**

EUSKAL JANTZIAK - BORDATU MOTA GUZTIAK
ESKUZ EGINDAKO PIEZAK
OSAGARRI TRADIZIONALAK

*Batzalarrin kalea 9, Laudio*
*944 072 215*
*Irrintzi, euskal jantzi denda*

---




hotelbalnearioareatza.com
balneario@hotelbalnearioareatza.com
94 657 27 05

## BAINUETXE BONUAK OPARITU

**Bainuetxe opariak:**
zirkuitu termalak, masajeak, gorputz tratamenduak...

ERRESERBATU ZURE BONUA!



HOTEL ORDUÑA PLAZA
★★★★ Balneario

hotelbalneariorduna.com
**balneario@hotelordunaplaza.com**
945 56 90 38

---

## Yaso

Gabonetarako opari-bonuak!

**OSASUNA ETA ONGIZATEA OPARITU**

*Eskuratu buruan duzun masajearen zein tratamenduaren bonua*



**JASONE MEABE**
OSTEOPATIA
Masaje zentroa
Terapia alternatiboak
Estetika · LNT saioak
Baias 7, LAUDIO
**688 696 619**

**BELÉN ANDRÉS**
Psikologia eta Mindfulness
**665 714 596**



# Eskualdeko zaporeak



Otorduen inguruan elkartzeko sasioa dira gabonak. Bazkari zein afarien bueltan aspaldiko zien eguneroko senide eta lagunekin elkartzeko une ezinhobea. Horretarako, ezinbestekoa da menu goxo eta atsegin bat aukeratzea, eta zer hobe tokiko produktuekin sukaldatzea baino!

Aiaraldean ekoizle, merkatari eta ostalari ugari daude kalitatezko eta gertuko zerbitzu bat eskaintzeko prest. Hurrengo orrietan Aiaraldeko zaporeen katalogo zabala topatuko duzu.

1982AN SORTUA
GORKA
· TABERNA ·
eguberri on!
GABONETAN BARRA ESKAINTZA BEREZIA:
OSTRAK, GANBAK ETA OTARRAINXKAK

EGUNERO
Pintxo barra
ASTEBURUETAN
Errazioak
IGANDEETAN
Brunch
*Aldez aurreko erreserbekin

BATZALARRIN KALEA 7, LAUDIO - 94 672 49 30 - @GORKATABERNA

1929 urtetik
LA ENCINA
RESTAURANTE
Astelehenetik ostiralera
eguneko menuak
Gabonetan ere, egin gurekin topa!
Garay hiribidea, 4 Artziniega (Araba)
ERRESERBATZEAK: 945 39 60 40 / 945 39 62 55

## Eskualdeko zaporeak

# *Amurrio eta Laudioko Gabonetako argiak piztu zituzten abenduaren hasierarekin batera*



Aiaraldeko udalerriek ez zuten astirik galdu. Abenduaren lehenengo eguna iritsi bezain laster piztu zituzten gabonetako argiak. Datorren hilabete osoan kale eta plazetako bazterrak goxotuko dituzte orain instalatutako milaka bonbillatxoek.

Amurrion eta Laudion ekitaldi bana egin zuten argien piztea ospatzeko. Eguraldi petralak ez zituen herritarrak gelditu eta dozenaka izan ziren Laudio zein Amurrioko plazara atera zirenak.

Amurrion Juan Urrutia plazatik piztu zituzten argiak, eta bertako zuhaitz disdiratsua izan zen gaueko protagonista nagusia.

Laudion, aldiz, Nehal Kadaoo Malici gazteak izan zuen apaingarriak pizteko ardura. Arratsaldea musika eta txokolatearekin girotu zuten.



## SELENE DIAZ GABIÑA

*Selene Frutadenda*

## Gazta-pastela kakiarekin

### *Osagaiak*
*(4 edalontzi txikientzako)*

- Kaki 1
- Krema-gazta bote bat
- Esne-gaina
- 2 arrautz
- 2 koilarakada azukre
- Galleta kurruskaria

**PRESTAKETA**

1. Azukrea, esne-gaina, gazta eta arrautzak nahasten ditugu.
2. Poteak bete eta estali egingo ditugu, estutu gabe.
3. 170 gradutara laberatuko ditugu ordu eta erdiz.
4. Labea aprobetxatuz, gure galleta gogokoena txikitu eta txigortu egingo dugu.
5. Prest ditugunean, kakia zatitu eta pastelaren gainean jarriko dugu.
6. Amaitzeko, galleta pixka batekin errematatuko ditugu.



Landako kalea 1, Amurrio
945 09 25 50 · @frutadenda_selene

## Eskualdeko zaporeak

# "Aukera berrien gailur" bilakatuko dute Babio mendia




### Amurrio Trail Taldeko kideek elkartasunaren gailur bilakatuko dute Babio mendia Gabonen testuinguruko ohiko igoera eta kirol ekimenean. Aurtengo edizioan bildutako dirua Down sindromea duten pertsonekin lan egiten duen fundaziora bideratuko dute.

Urteroko zitari heldu diote, aurten ere, Amurrio Trail Taldeko kideek. Abenduaren 23 eta 24an Babio mendia elkartasunaren ikur bilakatuko dute. "Aukera berriak denontzat" lelopean hamasei ordu Non-Stop ekimenaren V. edizioa eta Babio Igoeraren VII. edizioa antolatuko dituzte. Trail taldeko kideek aurreratu dutenez "oso gogotsu" daude aurtengo erronkari heltzeko. Asmoa, 2022ko edizioan jarritako marka gainditzea da, Amurrio Trail Taldekoen hitzetan. Iazko ekimena oso arrakastatsua izan zen; guztira 6.000 euro bildu zituzten alzheimerra eta beste dementzia batzuen aurka borrokatzen duen AFARABA elkartearentzat. Aurten bildutako diru guztia Down sindromea eta bestelako Ezintasun batzuk dituzten pertsonekin lan egiten duen Euskal Herriko fundaziora bideratuko dute.

**Non-Stop**

Abenduaren 23an 18:00etan, hasiko dute hamasei orduko kirol erronka. Une horretatik aurrera, eta abenduaren 24ko goizera arte, orduro kirolari talde bat abiatuko da Juan Urrutia Plazatik Babio mendiraino. Joan-etorriko hamar kilometroko ibilbidea da, 400 metroko desnibel positiboa duena, eta gau guztian zehar hornidura puntu txiki bat egongo da tontorrean.

Gaua gehiago girotzeko, Lehian erromeriak kontzertua eskainiko du Amurrioko plazan, 22:00etatik aurrera. Trail taldeak txosna solidarioa jarriko du.

Izen ematea Euskal Mendizale Federazioaren web-orrian egin beharko da. Inskripzioak bost euroko kostua izango du, eta diru guztia Down sindromearekin lan egiten duen fundazioak jasoko du.

Aurten, gainera, berritasun bat gehitu dute. Edozein elkarteko edo negoziok aukera izango du 30 euroko prezioan igoera erosteko, babesletza formatuan.

**VII. Babiora Igoera**

Ekimenaren hitzordu nagusia abenduaren 24an izango da. 10:00etan Juan Urrutia plazatik irtengo dira ehunka mendizale Babio mendiaren gailurreraino. Ekimenean Montes Solidarios eta Ezina Ekinez Egina elkarteen laguntza jasoko dute bidean, pertsona oro izan dadin tontorrera iristeko gai. "Biak irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuak dira eta dibertsitate funtzionala duten pertsonei zuzendutako mendiko jarduerak sustatzen eta antolatzen dituzte. Horretarako, pertsona itsuen eta ikusmen txikia duten pertsonen mendiko gidaritzan trebatutako pertsonak daude, bai eta Joelette aulkia erabiltzen eta gidatzen dutenak ere", azaldu dute Amurrio Trail Taldeko kideek.

Babioko puntan, Olentzeroren bisita berezia jasoko dute parte-hartzaile guztiek. Amurriora itzultzerakoan, aldiz, txokolate eta txistorra janaz gozatu ahalko dute Juan Urrutia Plazan.

## Eskualdeko zaporeak

# Kirol jarduera desberdinekin agurutuko dute herritarrek 2023. urtea



**Mendi martxak, San Silbestre lasterketak... urte zaharra agurtu eta berriari ongi etorria emateko hamaika jarduera antolatu dituzte Aiaraldean.**

Ohiturei jarraituz, aiaraldearrek kirola eginez agurtuko dute urte zaharra. San Silbestre lasterketak izango dira eguneko protagonista nagusiak abenduaren 31n. Urduñan, Orozkon eta Laudioko Ugarte auzoan egingo dituzte gisa honetako lasterketak.

Orozkon 16:00etan egingo dute txirrindularitza elkarteak antolatutako-duatloia, Zubiaur Plazatik hasita. Ugarten 17:30ean abiatuko dute ekimena, eta auzoko kaleak ez ezik Laudioko erdigunetik ere egingo dute korrika parte hartzaileek.

Abiatzen azkenak Urduñako kirolariak izango dira. Herri lasterketaren XV. edizioa Foru Plazatik abiatuko da. Antolatzaileek mozorratuta parte-hartzeko deia luzatu dute.

**Mendi martxak**

San Silbestre lasterketak ez dira kirola egiteko aitzakia bakarra izango. Eskualdeko mendi taldeek ere hainbnat irteera prestatu dituzte urteko azken egunerako. Mendiko Lagunka Taldeko kideak Tologorrira joango dira, Areta Trail Taldekoek Alpitxura igoera antolatu dute, eta, azkenik, Ganzorrotz talde artziniegarrak Peñalba mendira antolatu du txangoa.

**AIDA FUENTES IZA**
*Iza Okindegia*



*Gora ogi osasuntsua!*

**EGUBERRIETARAKO GOXOAK:**
Etxean egindako polboroiak, txokolate eta fruitu lehorren turroia, errege-opilak, stollen ogi alemana, txirikordak...

**OTORDU BEREZIETARAKO OGIAK:**
Hartzidura luzeko ogi artisauak, ama-orez eta irin garbiekin eginak. Baserri ogia, Gorbeia, zazpi-haziduna, mahaspasa eta intxaurrena, integrala, Artotxo, Tritordeuma, espelta... Eguberrietako otorduentzako eskaintza zabala.

**ESKAERAK ETXEKO ATARIRAINO:**
Egin zure eskaerak 94 672 84 94 telefonoan (WhatsAppez ere egin dezakezu) eta etxeko atariraino eramango dizkizugu ogi zein goxoak.



OKINDEGIA · PANADERIA IZA DESDE 1956

Zumalakarregi 30, LAUDIO
Kurtzegan 3, OROZKO
Tel.: 94 672 84 94 /94 661 00 68

TOÑI ARRAINDEGIA

Jai zoriontsuak!

Kontsultatu eguneko aukera gure Whatsapp egoeran
Eman begirada bat eta egin zure eskaera!
Gabonetan ere produktu bikainak

Laudioko Abastos Azokan
621 21 65 98 · 650 42 13 51 toniarraindegia@gmail.com

BVRVTXAGA
INDUSTRIAS CÁRNICAS

· PRESTATUTAKO JAKIAK
· EUSKADIKO APARTEKO HARAGIA
· TOKIKO ARKUMEA
· TXORIZOA, ODOLOSTEA, TXISTORRA ETA ETXEKO SALTXITXAK

AMURRIO
> Elexondo 15 – 945 890 186
> Landako 18 – 945 890 111
> San Anton enparantza 1
> Aldaiturriaga poligonoa 16
635 742 672 / 606 456 671

LAUDIO
> Karmen kalea 31

*Burutxaga Harategiak*
*Burutxaga Hestebeteak*

ARZA

HARATEGIA - URDAITEGIA

Espezialitatea arkume- eta behi-haragian
Urte berri oparo eta zoriontsua!

94 672 05 88
Batzalarrain, 9 - LAUDIO
inaki.arza@gmail.com

## Eskualdeko zaporeak

# Olentzero, mende erdi Aiaraldean



Laudio Ikastola

### Noiztik darama Olentzerok Aiaraldeko kale eta etxeak bisitatzen? Laudio Ikastolak bere 50. urteurrena dela eta urte hasieran argitaratu zuen liburuko pasarteetako batean galdera horri erantzuten zaio.

1972ko Gabonak bereziak izan ziren Laudion, Olentzeroren jaia ospatu baitzen lehenbiziko aldiz, Laudio Ikastolak sustatuta. Hala kontatzen du hezkuntza zentro horrek bere 50. urteurrena ospatzeko aurten argitaratu duen liburuan. Bertan azaltzen denez, ospakizunak "eskualde izaera" hartu zuen, eta inguruko herrietako haur zein guraso ugari bertaratu ziren, frankismoa oraindik indarrean zegoen arren. Hala ere, ez zen aparteko arazorik egon agintarien partetik, Pablo Gorostiagaren hitzetan.

Ikastolaren hasierako sustatzaileetako bat izan zen Gorostiaga, eta bere lekukotza jasotzen du liburuak besteak beste. Hala dio: "Olentzeroren kartelak ikastolako ama batek ekarri zituen Iruñetik. Oso kolore deigarriak zituen: gorria, berdea eta zuria. Oso gauza folklorikoa zen, eta gu ez ginen mugitzen ari ziren bakarrak. Aldarri asko azaleratzen ari ziren urte horietan, eta klima aldatzen ari zela sumatzen genuen".

Marije Legarretaren ustez, berritzailea izan zen ospakizun hura. Hala dio Ikastolako irakasle ohiak liburuan: "Umeak Gabonetan aritzen ziren Aita Noel eta Errege Magoak gora eta behera, eta orduan sortu zen figura horren beharra". Baina jende guztiak ez zuen begi onez ikusi, Milagros Etxezarragaren arabera: "jendeak esaten zigun: 'Nola egiten duzue Olentzero! Aita Noel eta Errege Magoak askoz alaiagoak dira eta!'". Antzeko oroitzapena partekatzen du baita Txelo Urkijo Mendigurenek. Ikastolako guraso ohi horren aburuz, jende asok ez zuen begi onez ikusi euskara eta euskal kultura zabaltzea, "zeozer arrotza" zela kontsideratzen zutelako.

Dena den, hurrengo urteetan errotuz joan zen Olentzeroren ohitura. Hurrengo edizioak beste herri batzuetan egin ziren, Ugaon edota Arrigorriagan kasu, eta handik denbora batera pasa ziren gaur egungo formatura, herri guztietan egun berean ospatzera igarota. Handik urte batzuetara Mari Domingi batu zitzaion gainera, eta orduz geroztik biek hartu dute abenduan Aiaraldeko herriak alaitzeko ardura.



# Eskualdeko zaporeak
























## Babestutako edukia



# Eskualdeko zaporeak

## Olentzero Solidarioa hainbat pertsonaia mitologikoren laguntzarekin agertu zen Menoion



Aiarako Biltokia elkarteak Olentzero Solidarioaren edizio berria egin zuen abenduaren 15ean Menoion. Elkartasun ekimenean jostailuak jasotzen dituzte beste ume batzuei oparitzeko, eta Mari Domingik gidatu zituen dozenaka lagun ikazkinaren bila. Bestelako pertsonaia mitologikok ere lagundu zuten bidean.

Dozenaka haur elkartu ziren abenduaren 15ean Menoion, Olentzerori elkartasun opariak eta eskutitzak emateko. Bidean, ordea, izaki mitologikoz betetako kondaira batean murgildu ziren haurrak. Izan ere, azti gaizto batek Olentzeroren laguntzaileak bahitu zituen.

Aiarako Biltokiak eta Etxaurreneko Guraso Elkarteak hainbat urte daramate ekintza antolatzen. Aiarako haurrek eramandako jostailu birziklatuak biltzen dituzte egun horretan, Olentzero eta Maridomingiri lana errazteko asmoz. Urtez urte Aiarako herri batean antolatzen dute ekintza mitologikoa.


**ARTOMAÑA**
*Txakolina*




## Artomañako txakolinarekin egindako mojitoa



### *Osagaiak*
*(2 edalontzientzako)*

- 40 ml Eukeni Txakolina
- 2 Azukre koilarakada
- 5 mendafin hosto
- 40 ml Limoi zuku
- Nahieran txikitutako izotza
- 4 menda hosto
- Limoi 1

**PRESTAKETA**

1. Mojitoaren oinarria egiteko edalontzian txikitutako izotza eta zatitutako mendafin hostoak sartu.
2. Gero, nahieran gehitu Eukeni Txakolina eta limoi zukua.
3. Azkenik, azukrea gaineratu.
4. Basoa apaintzeko, ertzak limoi zukuarekin buzti, bertan azukrea bota eta edalontzi barruan 2 menda hosto kokatuko ditugu.

ARTOMAÑA
Txakolina

www.artomanatxakolina.eus
@artomanatxakolina

eltunel
TABERNA-JATETXEA
**Taldeentzako afariak · Etxera eramateko janaria**
Igandeetan, abenduaren 25ean eta 26an, eta urtarrilaren 1ean eta 2an itxita.

Gabon zoriontsuak opa dizkizuegu!

Gasteiz kalea 5, **ARETA**-LAUDIO // Tel. **94 672 05 58** // **/barrestauranteeltunel**

kafe iluntze
Gabonetan ere, egin gurekin topa!
URTE BERRI ON!
Zumalakarregi etorbidea 47, Laudio
kafeiluntze@gmail.com 946 72 50 23

# Gabonetako agenda

## Abenduak 16, larunbata

*10:00// Urduña*
**TXANGO SOZIALA,** TXARLAZO MENDI TALDEAK ANTOLATUTA
*Foru Plaza*

*10:00// Urduña*
**TOKIKO MERKATUA**
*Foru Plaza*

*11:00// Laudio*
POLBOROIAK ETA TURROIAK
*Zubiko Etxea*

*17:00// Artziniega*
**GABONETAKO AZOKA**
*Toñin Luengas Frontoia*

*17:30// Artziniega*
GABONETAKO **TAILERRA**
*Artziniega Museoa*

*18:00// Amurrio*
**OLENTZERoren BISITA** SAN ROKERA
*San Roke*

## Abenduak 17, igandea

*09:00// Arrankudiaga-Zollo*
URTE AMAIERAKO **IBILALDIA**
*Arrankudiagako Plaza*

*10:00// Urduña*
**MARI DOMINGIREN BISITA**
*Foru Plaza*

*10:00// Laudio*
**NEGUKO SOLSTIZIOA** BASOAN
*Ellakuriko Basoa*

*10:30// Amurrio*
**OLENTZERoren BISITA** GOIKOMENDIRA
*Goikomendi*

*11:00// Laudio*
**EMAKUME SORTZAILEEN III. AZOKA**
*Faktoria*

*11:30// Artziniega*
TARTA BELTZA **TAILERRA**
*Udaletxe zaharra*

*12:30// Laudio*
KALEJIRA **EKIN JOLEAK** TALDEAREKIN
*Herriko kaleak*

*13:00// Orozko*
**GABON KANTEN** KALEJIRA
*Zubiaur Plaza*

*17:00// Artziniega*
**URTE AMAIERAKO JAIA**
*Nagusien lokala*

*17:00// Aiara*
UMEENTZAKO GABONETAKO ESKULAN **TAILERRA**
*Luiaondoko zentro sozialean*

*17:30// Artziniega*
**IKAZKINA**
*Artziniega Museoa*

*17:30// Artziniega*
MAGIA **IKUSKIZUNA**
*Nagusien lokala*

*18:00// Laudio*
**ALTZARRATE SARIAK**
*Kasinoa*

*18:30// Laudio*
DANTZA IKUSKIZUNA **ITXARKUNDIA** TALDEAREKIN
*Granja kiroldegia*

## Abenduak 19, asteartea

*17:30// Artziniega*
**IPUIN KONTALARIA,** "GABONETKAO ABENTURAK"
*Liburutegia*

*19:30// Orozko*
**"UNA QUIMERA DE VIDA"**, IÑIGO MARTINEZEKIN
*Artiñano Etxea*

## Abenduak 21, osteguna

*17:00// Urduña*
MAGIA IKUSKIZUNA **PEIO RIVASEKIN**
*Alondegia*

## Abenduak 22, ostirala

*12:00// Artziniega*
**OLENTZEROREN KALEJIRA**
*Arteko Gure Ama ikastetxea*

*12:00// Laudio*
LAUDIO BERRIKUSI, **GABONETAKO ZOZKETA**
*APILL egoitza*

*18:00// Laudio*
**IKAZKINAREN BISITA**
*Ugarteko Plaza*

*19:00// Urduña*
GABONETAKO KONTZERTUA, **SANTA ZEZILIA BANDAREKIN**
*Parrokia*

*19:30// Urduña*
ODOLOSTE JANA
*Foru Plaza*

*19:30// Laudio*
**SANTA LUZIA ABESBATZAREN** GABONETAKO KONTZERTUA
*Done Petri Parrokia*

*19:30// Orozko*
**GABONETAKO** TRIKITRIXA, TXALAPARTA ETA PANDERO **KONTZERTUA**
*Donibane Aretoa*

*21:00// Laudio*
**GOIATZ DUTTO**
*Kulturlab 03*

## Abenduak 23, larunbata

*11:00// Laudio*
IRTEERA SAN JUANERA **OLENTZERO ETA MARIDOMINGIREN BILA**
*Herriko Plaza*

*17:00// Amurrio*
**ZIRKA ZIRKUS**; "AURKITU GABEKO ALTXORRA"
*Udal Pilotalekua*

*17:30// Laudio*
**MARIDOMINGIREN BISITA**
*Faktoria*

## Abenduak 24, igandea

*10:00// Laudio*
**NEGUKO AZOKA**
*Aldai Plaza*

*11:30// Urduña*
**KALEJIRA** SANTA ZEZILIA BANDAREKIN
*Hiriko kaleak*

*16:00// Amurrio*
**OLENTZEROREN KALEJIRA**
*Anbulategitik*

*16:30// Urduña*
HARRERA **MARIDOMINGI ETA OLENTZERORI**
*Foru plaza*

*17:00// Artziniega*
**OLENTZERO ETA MARIDOMINGI**
*Toñin Luengas Frontoia*

*18:15// Laudio*
**OLENTZERO ETA MARIDOMINGIREN KALEJIRA**
*San Roke erresidentziatik hasita*

*18:30// Amurrio*
**OLENTZERORI AGURRA**
*Juan urrutia Plaza*

## Abenduak 25, astelehena

*11:30// Amurrio*
**OLENTZEROREN BISITA HERRIKO NAGUSIEI**
*Nagusien egoitza*

## Abenduak 26, asteartea

*11:00// Artziniega*
**BIZIFESTA**
*Toñin Luengas Frontoia*

*18:00// Laudio*
**"HAU GERRA BAT DA"**
*Kasinoa*

*19:00// Artziniega*
**ERREGE POSTARIA**
*Parrokia*

## Abenduak 27, asteazkena

*11:30// Artziniega*
**GABONETAKO PARKEA**
*Toñin Luengas Frontoia*

*17:30// Artziniega*
**GABONETAKO PARKEA**
*Toñin Luengas Frontoia*

# GABONETAKO AGENDA

## Abenduak 28, osteguna

*19:00// Laudio*
**MAGIA TAILERRA** PEIO RIVASEKIN
*Kultur Etxea*

*11:30// Artziniega*
**GABONETAKO PARKEA**
*Toñin Luengas Frontoia*

*17:30// Artziniega*
**GABONETAKO PARKEA**
*Toñin Luengas Frontoia*

*18:30// Orozko*
GABONETAKO **DANTZA EMANALDIA**
*Udal kiroldegia*

## Abenduak 29, ostirala

*19:00// Artziniega*
**ERREGE POSTARIA**
*Parrokia*

*19:00// Laudio*
MAGIA IKUSKIZUNA **PEIO RIVASEKIN**
*Kasinoa*

*19:30// Laudio*
**MARIACHI AMATITAN** KALEJIRA
*Aldai Plaza*

*19:30// Orozko*
**"BACKSTAGE. EL RETORNO"**, ANTZERKI MUSIKALA
*Donibane Aretoa*

## Abenduak 30, larunbata

*17:30// Laudio*
ERREGE MAGOEN **ERREGE POSTARIA**
*Herriko Plaza*

*18:00// Urduña*
GABONETAKO **BERTSO-SAIOA**
*Udal frontoia*

*19:00// Artziniega*
**KONTZERTU HERRIKOIA**
*Artziniega Museoa*

*20:00// Laudio*
**ROCKALEAN** ELEKTROTXARANGA
*Herriko kaleetan*

*22:00// Artziniega*
**KALEJIRA MUSIKATUA**
*Toñin Luengas Frontoia*

*23:30// Urduña*
**URTE ZAHAR AURRERATUA** 2024
*Foru Plaza*

*23:55// Artziniega*
**ARTZIKANPANADAK**
*Toñin Luengas Frontoia*

*00:00// Urduña*
**DJ OIHAN VEGA**
*Foru Plaza*

## Abenduak 31, igandea

*09:30// Urduña*
**TXARLAZORA IGOERA**
*Foru Plaza*

*10:00// Laudio*
"URTEARI AGURRA" **AZOKA**
*Aldai Plaza*

*10:00// Artziniega*
URTE AMAIERAKO **PEÑALBA IRTEERA**
*Hiriko atea*

*16:00// Orozko*
**SAN SILBESTRE** DUATLOIA

*17:00// Laudio*
**SAN SILBESTRE** LASTERKETA
*Ugarteko Plaza*

*18:00// Urduña*
**SAN SILBESTRE** LASTERKETA HERRIKOIA
*Foru Plaza*

*19:00// Laudio*
ANIMAZIOA FANFARREA **DUNBOTS** TALDEAREKIN
*Herriko kaleetan*



ARRATE GESTORIA, MATERIAL DE CONSTRUCCION AIALA, ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEA, ELKARLAN, LAUDIO BHI, ITXINA TABERNA, CAFE ARABA, LAUDIO IKASTOLA, ESKOLA PUBLIKOAK, LA MILAGROSA, CLINICA DENTAL OROZKO, MANTENIMIENTO Y SERVICIOS, LA ENCINA JATETXEA, GOROBEL CROSSFIT, A+A ILE-APAINDEGIA, GARRASTATXUKO TXOSNA, PSE-EE, CONSTRUCCIONES COSME, ARESKETA IKASTOLA, MATXINTXU HAURRESKOLA, SELENE FRUTADENDA, TREBIÑU SAGARDOTEGIA, AD INTERIOR DESIGN, FISKIMAT, CUADRABUS, ARABAKO FORU ALDUNDIA, RUBIK, KILI BERRIA, DBH GASTROBAR, KOLOREARTE, FONTANERIA CASTRO, OPEN YOUR MIND, BELABIA MOTOR, HITZ ZENTROA, DESBERDIN ILE-APAINDEGIA, ABIAGA JATETXEA, GARABILLA LANDETXEA, CARNICERIA SAN JOSE, IZA JATETXEA, AIARA BATUZ, ANTZINAKO ANDRA MARI IKASTETXEA, XCARET ILE-APAINDEGIA, PLAZA AMURRIO, AMAURRE IKASTETXEA, MUGALDE HERRIKO TABERNA, PROIEKTA STUDIO, HOTEL ORDUÑA PLAZA, BERRIA TALDEA, YANDIOLA HORTZ KLINIKA, PICAZA, EAJ, ODEIBAR, AMURRIO LOGOPEDIA, GRAFIK, PINTURAS REGUERA, ENTRE3 ILE-APAINDEGIA, JAIAK KOORDINAKUNDEA, MENDIKO LAGUNAK, AITOR GARTZIA, OROZKOROCK, TALLER FUENTES, ECOMOBEL, ELECTRICIDAD ALBIZUA, EROSKI, TORRE ANAIAK, SURYA, URDUÑAKO UDALA, GARDEN ERENA, JOAQUIN IBARROLA, AMURRIO BIDEAN, LAUDIOALDE, ORTOPEDIA AMURRIO, ARTZINIEGAKO UDALA, EGURLAN, AIARALDEKO EUSKALGINTZA KONTSEILUA, INSTALACIONES BERGANZA, KALAKAN JATETXEA, CLINICA DENTAL OROZKO, TXANGO GASTROTABERNA, LAUDIOKO UDAL EUSKALTEGIA, ETXAURREN HAURRESKOLA, EH BILDU, ZARAOBE, IMVA, EGUZKILORE ILE-APAINDEGIA, PIRINEUM TABERNA, SITO UGARTE, TRANSPINSA, KARRIKA, KOPAS, ARABA EUSKARAZ, BAT GARA TXAKOLINA, TXANTXIKU, ARTOMAÑA TXAKOLINA, ARRANKUDIAGA-ZOLLOKO UDALA, TXIMELETA, EKILORE ILE-APAINDEGIA, NR ABOGADOS, TIPI-TAPA HAURRESKOLA, IZA ASCENSORES, URDUÑAKO HERRI IKASTETXEA, LUCAS REY, ETXAURREN, AIARABIKE, EUSKAL HERRIA ESNEA, POLITENA, AIALUR, AMURRIOKO BATZOKIA, LEGATZA ARRAINDEGIA, EL TALLER DE ALEX, ASASAM, SOLAR360, LASAI TABERNA, IBERLANDA, ARAKALDOKO UDALA, OROZKOKO UDALA, ELECTRODOMESTICOS IZASKUN, URTXINTXA ESKOLA, EL RINCONCITO, PODEMOS, IZA OKINDEGIA, GOXE BERRI, LA CASTREÑA ARRAINDEGIA, AZOKA, DASTAKETA, ISHTAR ACADEMY, OKONDOKO OKINDEGIA, LAUDIOKO UDALA, ARABAKO TXAKOLINA, KUTXABANK, BIDEKO JATETXEA, AMURRIOKO UDALA, SUPER DARY, FERRETERIA ARBERAS, XARMANTA, AMURRIO FERROCARRILES, GORKA TABERNA, GES NERVION, EL TUNEL, SUSTRAIAK FISIOTERAPIA, HAITZULO BARRI, EUSKO PC, BASARTE CONSTRUCCIONES, ULTRAMARINOS SALLEN, ENKARKI, ARTEKO GURE AMA, URDUÑAKO BATZOKIA, ZABALEKO, FINCAS IPS, ARBIZU KANPINA, ARETAKO JAI BATZOREA, ONIEVA, GRAFICAS ARAKALDO, UGARTEKO ESTANKOA, APILL, AEK, ARCADE 1UP, BABIOTEC, EZPELABARRI, AIS FARMAZIA, TRANSPORTES GANZABAL, FONTANERIA URAGORRI, ARETXONDO TABERNA, ALBAÑILERIA SOUTO, ANA MARI HARATEGIA, FONTANERIA VIRTUS, VILLA FLORIDA, FONTANERIA RAGA, ARTIÑANO ETXEA, BERTSOLARI ALDIZKARIA, YASO, EPA LAUDIO/AMURRIO, VITAL FUNDAZIOA, EL CRUCERO LOTERIA, ARTZINIEGAKO ESTANKOA, GARAJE YAS, BAI BADA! LIBURU-DENDA, HIKEI JATETXEA, LABORAL KUTXA, OXFORD LANGUAGE SCHOOL, GUK TABERNA, BAISALA, HIT MODA-DENDA, INMOBILIARIA ETXAURRE, INNOTU, AIARAKO KUADRILLA, LIVING ENGLISH ACADEMY, PIENSOS VALLE DE AYALA, QUICK PC REPAIR, ILUNTZE KAFE, BENGOA TABERNA, BIARRITZ TABERNA, GATXETO ESTANKOA, GENERALI SEGUROS, CANDIDO BESA, EGOKI FISIOTERAPIA, EKILORE DENDA, SOBRON, ILARGI TABERNA, BABIO HORTZ KLINIKA, IZAN AMURRIO, INDRISKA, BONAIRE, UNAN JANTZIDENDA, ARZA HARATEGIA, TOÑI ARRAINDEGIA, BURUTXAGA, MARI PAZ URDAITEGIA, BEBIDAS SERRANO, DRUMGORRI MUSIKA ESKOLA, IRRINTZI, LUYANDO OPTICOS, SORPRESA, AIARAKO UDALA, KUVU, HIRUKA KOMUNIKABIDEA, ARTIÑANO ETXEA.

AIARALDEA KOMUNIKABIDE FAKTORIA

# Urte berri on eta eskerrik asko

**...eta AIARALDEA lagun edo Bazkide horri, proiektu hau egiten eta zabaltzen laguntzen gaituzulako, datorren urtea ederragoa izan dadila opa dizugu!**